

**6/2021 TXOSTENA, URTARRILAREN 29KOA, KONTRATAZIO  
PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEAREN BATZORDE  
IRAUNKORRARENA.****XEDEA: AGINDU-PROIEKTUA, OGASUN ETA EKONOMIA  
SAILBURUARENA ETA BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SAILBURUARENA, BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA  
GIZARTE POLITIKETAKO SAILAREN KONTRATAZIO-MAHAIAREN  
OSAERA EZARTZEKOA.****I.- AURREKARIAK.**

2021eko urtarrilaren 20an, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak txosten-eskaera egin zuen, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren kontratazio-mahaiaren osaera ezartzen duen Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren agindu-proiektuari buruz.

Prozedurak elektronikoki izapidetzeko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetutako espedientean (erreferentzia: DNCG\_ORD\_109367/20\_10), honako agiri hauek agertzen dira:

- Agindua, 2020ko abenduaren 3koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, agindu-proiektua egiteko prozedurari hasiera ematea erabakitzen duena.
- Agindu-proiektuari buruzko justifikazio-memoria, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Zerbitzu zuzendariak sinatua.
- Agindua, 2021eko urtarrilaren 11koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, agindu-proiektuari alde aurreko onarpena ematen diona.
- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Aholkularitza Juridikoaren txostena.



## **II.- ESKUMENA.**

Txosten hau egitea nahitaezkoa da, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27.a).2 artikuluan xedatutakoaren arabera (aurrerantzean, 116/2016 Dekretua); izan ere, behin betiko izendatutako kontratazio-mahaia edo kontratu anitzetarako mahaia eratzeko agindu-proposamen bat da.

## **III.- KONTRATAZIO-MAHAIEN ARAUBIDE JURIDIKOA.**

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (aurrerantzean, SPKL) –horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora– bere 326. artikuluan kontratazio-organoari laguntza emateko kide anitzeko organo gisa arautzen ditu kontratazio-mahaiak. Aipatu legearen azken xedapenetako lehenarekin bat etorrira, 326. artikuluko hori ez da oinarritzeko legeria.

116/2016 Dekretuan dago jasota kontratazio-mahaien araudia, zehazki, 8. eta 9. artikuluetan. Lehenak kide anitzeko organo horien osaera arautzen du, bai eta kideen izendapena ere; bigarrenak, berriz, organoaren funtzioen irismena zehazten du.

Prozedura irekietan, mugatuetan eta prozedura negoziatu publikatedunetan, 8. artikuluko oro har xedatzen duenez, kontratazio-organoek kontratazio-mahai baten laguntza izango dute, eta mahai horren eskumena izango da eskaintzen balorazioa egitea. Horrez gain, xedatzen du ezen, lizitazioaren berri iragarki bidez eman beharrik ez duten prozedura negoziatuetan, kontratazio-organoak aukeran izango duela kontratazio-mahaia eratu ala ez. Kontratazio-organoari dagokio mahaia osatuko duten pertsonak izendatzeko eskumena, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkaria izan ezik, haren titularrak izendatuko baitu.

Artikulu beraren 2. apartatuan, kontratazio-organoari laguntza emateko organoen osaera-arauak finkatzen dira, eta ezartzen da presidente batek, idazkari batek eta gutxienez hiru kidek osatuko dituztela kontratazio-mahaiak. Eta, horrez gain, ezartzen da kideen artean honako hauek egon beharko dutela nahitaez: kontratazio-organoari aholkularitza juridikoa emateko betebeharra duen kide bat eta aholkularitza teknikoa emateko betebeharra duen beste bat, eta kontu-hartzaile bat edo kontratazio-organoaren ekonomia eta aurrekontuak kontrolatzeko zeregina



esleituta duen pertsona bat. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) ondasunak, azpiegitura teknologikoak eta zerbitzuak kontratatzen direnean, IKTen arloan eskumena duen zuzendaritzako pertsona bat izan beharko da kontratazio-mahaian, aipatutako zuzendaritzaren titularrak proposatua eta eskumena duen kontratazio-organoak izendatua.

Kontratazio-organoak eskatuz gero, aipatutako kideez gain, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzako ordezkari bat ere izango da kontratazio-mahaian.

Kontratazio-mahaiko kideak izendatzeari dagokionez, aipatutako 8. artikuluko 3. apartatuaren arabera, behin betiko izenda daitezke, edo berariaz ere bai, justu kontratu bakoitza adjudikatzeko. Era berean, zehazten denez, Kontratazio-mahaiko kideak behin betiko izendatzen badira edo mahaiari kontratu anitzetarako eginkizunak esleitzen bazaizkio, kontratazioaren alorrean eskumena duen sailaren titularraren eta kasuan kasuko sailaren titularraren edo erakundea atxikita dagoen sailaren titularraren baterako agindu bidez eratuko da kontratazio-mahaia, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Halaber, beste baldintza bat gehitzen du: nola osatu den eta kideak nor diren adieraziko da kontratuaren administrazio-klausula zehatzen pleguan, eta kasuan kasuko kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da, kontratuak egiteko gaitasuna duela egiaztatzeko dokumentazioa kalifikatzeko bilera egin baino hamar egun lehenago gutxienez eta kaudimen- edo sailkapen-baldintzak betetzen dituela kalifikatu baino hamar egun baino lehen.

#### **IV.- KONTRATAZIO-MAHAIK ERATZEA.**

Eusko Jaurlaritzaren sailen berregituraketak, zeina Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren bidez egin baita, eraketa berri bat eman dio sail bakoitzak esleituta duen jardun-eremuari. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari dagozkion funtzioak eta jardun-eremuak, zehazki, dekretu horren 13. artikuluan adierazten dira.

Horregatik, beharrezkotzat jo da Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Kontratazio Mahaiaren osaera egokitzea.

#### **V.- AGINDU-PROIEKTUA.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari eskatu zaion txostenean aztergai den agindu-proiektuaren bidez, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Kontratazio Mahaiaren osaera iraunkorra ezarri nahi da.



Agindu-proiektuak arau-lerruna eta organo eskudunak errespetatzen ditu, kontratazio-mahaiko kideak behin betiko edo mahaiari kontratu anitzetarako eginkizunekin izendatzeari dagokionez, 116/2016 Dekretuaren 8.3 artikulua eskatzen duenaren arabera.

Azalpeneko hirugarren lerrokadan, lehen tartekian, honako idazketa proposatzen da: «*Bestalde, 116/2016 Dekretuaren 8. artikuluko 3. apartatuaren bigarren lerrokadak [...]».*

Agindu-proiektuaren artikuluko bakarreko 2. zenbakiaren b) letran Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkaria aipatzen da. Pertsona hori kide «*kontu-hartzailea*» da, 116/2016 Dekretuaren 8. artikuluko 2. zenbakiaren lehen paragrafoaren azken tartekian aipatzen dena, eta kontu-hartzailetzako kontrolaz arduratzen dena, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legean araututakoaren arabera. Hori dela eta, agindu-proiektuaren artikuluko bakarreko 2. zenbakiaren b) letran azken tartekia kentzea proposatzen da: «*[...] eta kontratazio-organoren ekonomia- eta aurrekontu-kontrolaren eginkizuna duena*».

Agindu-proiektuaren artikuluko bakarreko 2. zenbakiaren c) letran, lehen tartekia honela idaztea proposatzen da: «*c) Idazkaria-Kontseilukidea-Aholkulari juridikoa: Zuzenbideko gradua edo lizentzia duen pertsona bat*».

Agindu-proiektuaren artikuluko bakarreko 5. Zenbakiaren azken tartekian, gaztelaniaz, «*perfil del contratante*» esaten da, baina «*perfil de contratante*» esan behar du.

Agindu-proiektuaren lehen xedapen indargabetzailearen arabera, «*indargabetu egingo da 2017ko apirilaren 24ko Agindua, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuarena eta Ogasun eta Ekonomia sailburuarena, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren kontratazio-mahaiko kideak izendatzen direna, gizarte-politiken arloari dagokionez*».

Bestalde, proiektuaren bigarren xedapen indargabetzailearen arabera, «*indargabetu egingo da 2017ko maiatzaren 10eko Agindua, Lan eta Justiziako sailburuarena eta Ogasun eta Ekonomiako sailburuarena, Lan eta Justizia Sailaren eta Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea erakunde autonomoaren kontratazio-mahaiaren osaera ezartzekoa*».

Aipatu xedapen indargabetzaileen edukiari dagokionez, autonomia-erkidegoko administrazio-sailen eskumen-esparruko xehetasunetan sartu gabe, xedapen indargabetzaile horiek kontratazio-mahaiak eratzeko bi aginduri buruzkoak direnez, ohar hauek behar ditugu kontratazio publikoaren arloan.



Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak) honako hau ezartzen du xedapen iragankor bakarrean: *«Dekretu honen azken xedapenetako lehenengoan jasotakoa bete arte, indarrean jarraituko dute Lehendakaritzaren eta Jaurlaritzaren sailen egitura eta egitekoak finkatzen dituzten arau organikoek».*

18/2020 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriak honakoa zehazten du: *«1.- Dekretu honen 6. artikuluan aipatzen den Lan eta Enplegu Saila desagertutako Lan eta Justizia Saileko organo eta unitate guztiek osatuko dute, Justizia Sailburuordetzako organo eta unitateek izan ezik. 2.- Lan eta Enplegu Sailean sartzen dira desagertutako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Enplegu eta Gazteria Sailburuordetzako organoak eta unitateak, Gazteria Zuzendaritza izan ezik».*

Bestalde, aipatu 18/2020 Dekretuaren seigarren xedapen gehigarriaren arabera, *«1.- Dekretu honen 13. artikuluan aipatzen den Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila desagertutako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko organo eta unitateek osatuko dute, Enplegu eta Gazteria Sailburuordetzako organo eta unitateek izan ezik, Gazteria Zuzendaritzaren salbuespenarekin.*

*2.- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailean sartzen dira desagertutako Lan eta Justizia Saileko Justizia Sailburuordetzako organoak eta unitateak, bai eta Lehendakaritzaren aurreko egiturako Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiko organoak eta unitateak ere».*

Esandakoaren arabera, beraz, SPKLren 326. artikuluan eta 116/2016 Dekretuaren 8. artikuluan arautzen dira kontratazio-mahaiak, kontratazio-organuari laguntzeko kide anitzeko **organo** izendatuta.

Irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren xedapen iragankor bakarraren eta bigarren xedapen gehigarriaren arabera, enplegu-arloko kontratuak esleitzeko, kasuan kasuko kontratazio-mahaiak Lan eta Justiziako sailburuaren eta Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren 2017ko maiatzaren 10eko Aginduan, Lan eta Justizia Sailaren kontratazio-mahaiaren osaera ezartzekoan, zehaztutako osaera izan behar dute. Aipatu agindu hori, ordea, indargabetu duenez bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuaren eta Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2020ko azaroaren 26ko Aginduak, Lan eta Enplegu Saileko kontratazio-mahaiaren osaera ezartzekoak, 2020ko abenduaren 18an indarrean jarriak, data horretatik aurrera, azken agindu horretan ezarritako osaera izan behar dute eratzen diren kontratazio-mahaiak.



Halaber, irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren xedapen iragankor bakarraren eta seigarren xedapen gehigarriaren arabera, justizia-arloko kontratuak esleitzeko, kasuan kasuko kontratazio-mahaiek Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuaren eta Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren 2017ko apirilaren 24ko Aginduan, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren kontratazio-mahaiko kideak izendatzekoan, zehaztutako osaera izan behar dute, eta txostenak aztergai duen agindu-proiektua indarrean jartzean, aginduan zehazten dena.

Hori horrela, ulertu da agindu-proiektuaren lehen xedapen indargabetzailea egungo Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko kide anitzeko organo baten osaera zehazten duen araua indargabetzeari buruzkoa dela, osaera aipatu sailaren egitura eta egitekoetara egokitzeko. Aipatu araua osorik indargabetu behar da, sailaren jardun-arloetan salbuespenik egin gabe. Beraz, azken tartekia ezabatu behar da: «[...] *gizarte-politiken arloari dagokionez*».

Halaber, agindu-proiektuaren bigarren xedapen indargabetzailea kentzekoa dela iritzi da, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren beste sail bateko kide anitzeko organoaren osaera zehazten duen araua indargabetzen duelako, alegia, egungo Lan eta Enplegu Sailekoa, eta arau hori indargabetu du jada bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuaren eta Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2020ko azaroaren 26ko Aginduak, Lan eta Enplegu Saileko kontratazio-mahaiaren osaera ezartzekoak.

Azaldutakoagatik, **ALDEKO TXOSTENA** ematen diogu Ogasun eta Ekonomia sailburuaren eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren agindu-proiektuari, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako kontratazio-mahaiaren osaera ezartzekoari, haren edukia txosten honetako jarraibide eta gomendioetara egokitu ondoren.